



SOINU-INPROBISAZIOA

Hemen eta orainerako estrategiak

Tailerra - Workshop

SOINU-INPROBISAZIOA: Hemen eta orainerako estrategiak

Alfredo Costa Monteiroren eskutik

Abuztuaren 1etik 5era

10:00-14:00 - 16:00-19:00 (astelehenean, hilak 1, soilik arratsaldean) / Arteleku / Donostia-San Sebastián

Antolatzailea: **Audiolab**

Parte-hartzaileak: gehienez 12

Tailerrean parte hartzeko bidali zure CV eta arrazoiak arteleku@gipuzkoa.net helbidera **UZTAILAREN 20a BAINO LEHEN**. Parte hartzea doakoa da.

John Cage konposatzaile iparramerikarrak 30. hamarkadan piano prestaturako obrak egin zituenetik musika tresnak estatus berri bat hartzen hasi ziren abangoardiako musiken barruan. Instrumentuak erabiltzeko modu berri hauek eskaintzen zituzten aukerak ikusita, musika sortzeko ikuspegiak konposizio klasiko-garaikidearen parametroetatik aldentzen hasi ziren, eta pixkanaka soinua askeago aditzera eman zitekeen lurralde berrietara mugitzen joan ziren, egoera berriak, praktika berriak eta musika ulertzeko modu berriak sortuz. Hala sortu zen 60ko hamarkadan inprobisazio askea, nolabait free-jazzaren eta musika garaikidearen oinordekoa. Instrumentuak prestatu egiten ziren, euren tradizioa ahaztu(a)z eta aukera berriak zabaldu(a)z.

Gaur egun, baliabide teknologikoei edo prestaketa akustiko edo anplifikatutako teknika berriei esker, inprobisazio askea askoz aberatsagoa eta abstraktuagoa bihurtu da.

Tailer honen helburua parte-hartzaileak teknika hauetako batzuetan trebatzen hastea da, berdin musika tresnen nahiz objektuen bidez. Helburu horrekin, soinua berezkoak dituen testura, dinamika, tinbrea edo permanentzia bezalako ezaugarrien inguruan lan egingo da. Tailerrean zehar, musika tresnak, objektuak, elektronika, grabazioak etab. erabiliko dira. Alegia, edozein soinua iturri erabili ahal izango da. Egoera kolektibo nahiz bakarkakoen bidez, zenbait estruktura, soinua sortzeko hainbat modu, entzumenarekiko erlazioak edo erabakiak hartzeko moduak ezagutu eta sortzen saiatuko da tailerra.

Alfredo Costa Monteiro Oporton jaio zen 1964ean. Bartzelonan bizi da eta bertan lan egiten du 1992tik.

Hain zuzen 1992an Eskultura/Multimedia ikasketak burutu zituen Parisko Arte Eder Eskolan, Christian Boltanskirekin. Orduz geroztik, arte plastikoetatik (instalazioak) soinua eta irudizko poesiara eta soinura doan jardura aberatsa garatu du. Bere lan gehienak, askotan etxean eginikoak, prozesu ezegonkorrekiko eta objektu bihurtzen diren tresnekiko edo tresna bihurtzen diren objektuekiko interesa dute, izaera fenomenologiko nabarmen bat hartzen dutelarik.

Bere lana hainbat bakarkako nahiz talde erakusketetan aurkeztu du. 2001etik, musikari, koreografo, dantzari eta bideoartista askorekin egin du lan. Diskografia zabala argitaratu du Antifrost, Rossbin, Absurd, Étude Records, Monotype records, Another Timbre edo Creative Sources bezalako disketxetan, bakarka nahiz elkarlanean.